TOLOSAKO UDALA

Tolosako Udala
Zk./ Nº 2026/26
Data / Fecha 2026/11/03
AKTA / Acta

2026IGBA0041

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2026.11.03

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregui

Bertaratutako zinegotziak:
Ander Figuerido Zubiria
Miren Yosune Sanz Vidal

Ez da bertaratu:
Aitor Aguirresarobe Murgui
Goiuri Eceiza Arandia
Cristina Pelaez Errazquin

Udal idazkari akzidentala:
Maria Carmen Contreras Goikoetxea

Kontu-hartzailea:
Marta Alonso Sarasola

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita seiko azaroaren hiruan, 10:00etan, bigarrengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

A) AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA

1.Onartzea, hala badagokio, 2026ko urriaren hogeitazazpian egindako batzarraren akta.

Espedienteen kodeak: 2026IGBA0040

B) EBAZPEN ATALA

2. puntua. Onartzea, hala badagokio, 2026ko lanpostuen balorazioa berri-kusteko plangintza.

Espedientearen kodea: 2026PLBB0001

C) INFORMAZIO ETA KONTROL ATALA

4. puntua. Dekretu hauen berri ematea.

2026/2946 Dekretua: 2026/61 faktura zerrenda.
2026/2945 Dekretua: 2026/62 faktura zerrenda.

ESKUf279ef55-d0e5-494c-addd-0c2137bdfb1d

1. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2026KO URRIAREN 27AN EGINDAKO BATZARREN AKTA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. PUNTUA. ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2026KO LANPOSTUEN BALORAZIOA BERRIKUSTEKO PLANGINTZA.

I K U S I R I K

Lehena.- Tolosako udalbatzak 2022ko abenduaren 15ean egindako bilkuran, lanpostuen katalogoa, balorazioa, sailen organigrama eta Lanpostu zerrenda behin-betiko izaerazonartu zuen.

Hori horrela, udalbatza osoak, berrikuspen araudiari dagokionean, honakoa onartu zuen:

> ***"BOSGARRENA**.- Lanpostuen Balorazioko berrikuspena arautuko duen Erregelamenduaren onarpena atzeratzea, araudia lantzen eta negoziatzen den bitartean."*

Bigarrena.- Tolosako udalbatzak 2024ko abenduaren 23an lanpostuen balorazioa berrikusteko araudia hasierako izaeraz onartu zuen. Behin hasierako onarpen hori jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia eman ondoren, ez dira erreklamazioak aurkeztu, hortaz behin-betiko izaeraz onartutzat ematen da.

Hirugarrena.- Araudian zortzigarren puntuan adierazten den moduan, urtero udal gobernuak plangintza bat egingo du eta bertan, berrikusiko diren lanpostuen zerrenda eta kronograma bat onartuko du, zehaztuaz baloratuko diren eta errebisatuko diren lanpostuak.

Honela, Giza Baliabide sailak 2026 urterako plangintza proposamen bat aurkeztu du eta hau zerbitzuburuei helarazi zaie, 15 lan egunez iradokizunak egin ditzan; epe honetan, bost proposamen aurkeztu dira (Gizarte zerbitzuak eta udaltzaingoarenak hain zuzen ere). Behin proposamenak aztertu ondoren, hauek aurrerago berrikustea erabaki da.

Laugarrena.- Lanpostuen berrikuspenak edo lanpostu berrien balorazio prozedurak bi bide ezberdinetatik bultzatu ahal izango da:

- Lehena, **ofiziozko berrikuspena**; honetan bi prozedura erabiliko dira:

a) Ohiko prozedura: Udalak sustaturiko prozesuaren barruan, lanpostuen balorazioa berrikusteko onartutako plangintzaren arabera garatuko dena.

ESKUf279ef55-d0e5-494c-addd-0c2137bdfb1d

b) Ezohiko prozedura: lanpostu baten funtzioak modu kualitatiboan aldatzen direnean, (berrantolaketa bat egin delako, betebehar berriak sortu direlako, etab.) edo indarrean dagoen balorazioan akats edo hutsune nabarmenak ikusten direnean.

- Bigarrena, **interesatuek** berriz aztertzeko eskaturiko prozedura: honetan, udalak urtean zehar epe bat irekiko duten interesatuek, ahal nahi izan ezkero, dagokion eskaera aurkez dezaten.

ORDEZKARITZA SINDIKALAREKIN NEGOZIAZIOA

Urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretu Legegileak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duenak, bere 37.1 artikuluaren k) atalean xedaturikoaren arabera, funtzionarioen ordainsariei eta bere lan baldintzei dagozkien gaiak pertsonalaren ordezkariekin negoziatu behar dira, beti ere Administrazio bakoitzaren eskumenen barruan, eta legez dagokion hedaduraz. Zentzu horretan, plangintza hau 2026ko otsailaren 24an ordezkari sindikalekin negoziatu zen.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, alkateak emandako ahalmenez baliatuta aho batez onartzen du honako:

EBAZPENA

Lehena.- Tolosako udaleko lanpostuen balorazioa berrikusteko 2026 urteko plangintza onartzea, eta honako lanpostuak berrikustea; informatikaria burua, informatika teknikaria, informatikari teknikari laguntzailea, errenta teknikaria, txistularia, txistulari bandako zuzendaria, igeltsero balioaniztuna, gidari pertsonal balioaniztuna, igeltsero eta gidari pertsonal balioaniztuna, pertsonal balioaniztuna, ofizial iturgina eta lantalde arduraduna.

Bigarrena.- Akordio hau ordezkari sindikalei jakinaraztea.

3 DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA

2026/2946 Dekretua: 2026/61 faktura zerrenda

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

ESKUf279ef55-d0e5-494c-addd-0c2137bdfb1d

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2026eko honako faktura-zerrenda hau:

61. zenbakia duena, 220.777,19 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

61. zenbakia duena, 220.777,19 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

ESKUf279ef55-d0e5-494c-addd-0c2137bdfb1d

TOLOSAKO
UDALA

2026IGBA0041

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA	IDAZKARI AKZIDENTALA
Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte	Mª Carmen Contreras Goikoetxea

2026/2945 Dekretua: 2026/62 faktura zerrenda

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koa, zinegotzi delegatuari emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2026eko honako faktura-zerrenda hau:

62. zenbakia duena, 9.906,68 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

ESKUf279ef55-d0e5-494c-addd-0c2137bdfb1d

TOLOSAKO UDALA

2026IGBA0041

62. zenbakia duena, 9.906,68 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA	IDAZKARI AKZIDENTALA
Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte	Mª Carmen Contreras Goikoetxea

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:20(e)tan.

Alkatea	**IDAZKARI AKZIDENTALA**

EKS | CSV: ESKUf279ef55-d0e5-494c-addd-0c2137bdfb1d

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	2026IGBA0041-IGBA_AKTA/IGBA_AKTA ()

Digitalki sinatua:

Karmele Contreras Goikoetxea
Idazkari akzidentala
Data: 2026/11/03 12:39:14

SARA BERASATEGUI FUERTES titularraren ordez jarduten (2026/2197 dekretu bidez ebatzita)

Digitalki sinatua:

Angel Martinez de Rituerto Arregui
Alkatea
Data: 2026/11/03 15:06:39